

# ERREGE ALFERREN NEURRIKO MARATOIA



**Nagore Irazustabarrena  
Uranga**

@irazustabarrena

Grezia, K.a. 490. Maratongo guduan greziarrek persiarrak mendean hartu zituzten. Herodotok, Plutarkok eta Luzianok jaso zuten garaipenaren berri eta, bertsoak bertso, kondairak dio Filipidesek Maratonetik Atenaserako bidea korrika egin zuela albistea jakinarazteko, eta misioa bete ondoren hil zela. Horixe da maratoni modernoaren oinarria eta askok uste dute probaren 42,175 kilometro horiek Maraton eta Atenasen arteko distantzia direla. Baina bi puntuen artean 200dik gora kilometro daude.

Lehen Joko Olinpiko modernoetan (Atenas 1896) 40 kilometroko lasterketa prestatu zuten. Handik lau urtera, Parisko jokoetan ere neurri bera aukeratu zuten, oso zehatzak izan ez baziren ere: helmugara iritsi ziren maratouilariek 40,260 kilometro egin zituzten.

1908ko Londresko jokoetan Windsorretik Londreserako 40 kilometro inguruko ibilbidea prestatu nahi izan zuten, errege familia Windsorren bizi zela aprobetxatuz. Lasterketa errege jauregitik bertatik abiatuta, bertan bizi zirenek etxetik irteteko beharrik ere ez zuten izango probaren hasiera erosotasun osoz ikusteko. Eta, hala, maratonia errege-erreginen leihopean hasi zen. White City estadioko errege-palkora iristeko 42,175 metro egin behar zituzten. Baina zer dira bi kilometro gehiago halako lasterketa luzean?



HULTON ARCHIVE

*Alexandra Danimarkakoa, Eduardo VII.a erregearen emaztea, Dorando Pietriri kopa ematen. Italiarra izan zen Londresko 1908ko Joko Olinpikoetako maratonia helmugara iristen lehena, baina laguntza jaso zuelako deskalifikatu zuten. Hala ere, erreginak ahalegina eskertu nahi izan zion.*

Bada, joko haietan distantzia gehituak emaitzan eragina izan zuen. Dorando Pietri italiarrak 39. kilometroan hartu zuen lasterketa burua eta 40.ean erraz ari zen. Baina estadiora iristean pott egin zuen eta behin eta berriro erori zen. Ingurukoek –besteak beste, Arthur Conan Doyle idazleak– aldiro altxatzen lagundu zioten eta, helmugara iristen lehena izan arren, laguntza horren erruz deskalifikatu zuten.

Stockholmen (1908) 40,200 kilometro egin zituzten eta hurrengo joketan, Anberesen, inoizko maratoni olinpikorik luzeena egin zen: 42,750 kilometro. Azkenean, 1921ean distantzia behin betiko finkatzea erabaki zuten. Atletei ahaleginik handiena eskatzen zien lasterketarako, errege familiari ahaleginik txikiena eskatu zion distantzia aukeratu zuten: 42,175 kilometro. ■



BALAJJUGADESH

## Lehen transplanteak (eta errefusak)

Hil honetan 50 urte bete dira bihotzeko lehen transplante arrakastatsua egin zutela. Baina saiakerak askoz lehenago hasi ziren. K.a. VII. mendean Sushruta sendagile hinduak (argazkian) medikuntza aiurbedikoari buruzko tratatu bat idatzi zuen eta hor jaso zuen anputatutako sudurrak –ohiko zigorra garai eta lurralde haietan– berregiteko metodoa: kopetako azala

transplantatu behar omen zen. Handik lau mendera, Hua To txinatar medikuak organo kaltetuak kendu eta ondo zeuden beste organo batzuk transplantatzen zituela geratu zen jasota. Baina ez dugu ebakuntza horien emaitzen berri. Ziurrenik gaixoak ez ziren bizirik aterako, bi milurtekoetik gora beharko baitziren organoen errefusaren aurkako borroka irabazten hasteko. ■